

{ analisia } Ramon Sola

Olatutzarren aroa

Espero gabeko emaitza utzi omen dute abenduaren 20ko hauteskundeek, eta are espero gabeagoa izan da Euskal Herrian gertatutakoa. Albiste onak, aurretik: azken bost urtetik hona, olatuak beti ezkerretik, eta erabakitzeko grinak hauspoturik, datoz gurera, bata bestearen atzean eta zein baino zein harroago. Bilduk olatu ederra altxarazi zuen 2011ko maiatzean eta Amaiurrek berdindu ez ezik gainditu egin zuen urte bereko azaroan: 334.000 boto. Ahal Duguk orain ezerezetik sortutako olatua are ikaragarriagoa izan da: 397.000 boto. Astindu bikotizaren neurgailu paregabea dugu Donostia: *glamour*-ak, eskuinak eta botere faktikoek sendo dirauten arren, Bildu-Amaiur eta Ahal Dugu indar bozkatuena izan dira ia jarraian, Gipuzkoako hiriburuak bere “gerriko gorriaren” antza hartuta.

Ez dira txikiagoak barrualdeko olatuak. Duela bost urte inork gutxik iragarriko zuen Yolanda Barcinaren tokian Uxue Barkos egongo zela, Iruñeak EH Bilduko alkatea izango zuela eta 2015-2019 zikloan UPNren agintea ahuntzaren gauerdiko eztula izango zela. Bitartean, hainbeste aparta utzi gabe Araba eta Gasteiz ere zeharo aldatuta ageri zaizkigu, naftalina usainaren ordezkresal freskoarena dariela.

Denborak

Ez dira olatu berdinak, jakina, bakoitzak bere altuera, norabide eta ezaugarriak ditu. Denboretan ere aldea dago. Bat-batekoa izan zen Bilduren olatutzarra; gogoratu behar da Bilboko Areatzan bildutako jendetzak hauteskunde kanpaina abiatzen zen

2010etik honako Estatu mailako bi gertaera politiko indartsuenak (Kataluniako prozesua eta Podemos) ez ziren gertatuko, ez behintzat duten izaerarekin, ezker abertzaleak aro berria ireki izan ez balu. Horrek sosegua eman beharko lioke EH Bilduri.

gauerdian bertan jakin zuela Auzitegi Konstituzionalak koalizioaren zerrendak baimentzen zituela. Bat-batekoa ez, baina jatorrian azkarra eta beroa ere izan zen Amaiurrena; hilabete eskas igaro zen ETAk borroka armatua behin betiko uzten zuela iragarri zuenetik botoa emateko aukera izan zen egunera arte. Mantsoago joan ziren mugitzen urak Nafarroa aldean. Eta geldoago oraindik Ahal Duguren kasuan: itsasikara bost urteko hainbat burrunben ondorio da.

Garaipen politikoak gizartean sortutako baldintzen fruitu direla gero eta nabariago da. Hegemonia politikoa lortu aurretik, gizarte mailako hegemonia eratzen dela ondorioztatu dute hainbat adituk. Nafarroan begi bistakoa da sekuentzia hori. Erraz irabazi zituen Erregimenak 2011ko bi hauteskunde haiek, baina 2012tik aurrera ka-

lean gauzak sakonki aldatzen hasi ziren: Barcinaren Gobernuaren murrizketek, ustelkeria kasuek eta oinarritzko eskubideen aurkako erasoek mobilizazio ugari eta jendetsuak eragin zituzten, ordura arte beti elkarri bizkarra emanda jardun ohi zuten eragile aurrerakoiak bilduz. Uste berria eratzen joan zen gizartean, ia ohartu gabe: oso labur esanda, Nafarroa ez zen UPNk, PSNk, CENek eta abarrek aldarrikatzen zuten paradisua, gutxi batzuen poltsikoak betetzeko aukera paregabea baizik. Iritzi hori gizartean nagusi bilakatu ondoren, hautetsontzieta iraulia heldu zen.

Ahal Duguren arrakasta ere behetik gora eta astiro joan da mamitzen. Nafarroako aldaketarekin batera garatu dela dirudi, bai daten aldetik bai eta edukien aldetik ere. Krisiak begiak bortizki ireki dizkio herritar askori,

beren egoera propioa salatzeke kalera aterarazi ditu, eta, horrek, aldi berean, orain arte engainatuta egon izanaren autokomentzimendua indartu du. M-15eko kanpaldi hura 2011n gertatu zen, eta lau urte pasata gorpuzte politikorik ez zuela izango uste zenean, hor etorri da eztanda, su baxuan egozten joan izan baltz bezala; orain, bada, osagai guztiak nahastuta azaleratu dira bat-batean. “Hau ez da demokrazia” bezalako kontzeptuak gizartean sustraitutako uste bilakatu direnean, nolabaiteko naturaltasunez sortu da hauteskunde olatua. Horregatik, harri-garria izan badaiteke ere olatuak hartu duen indarra, ez da hain harri-garria azkenean olatua altxatu izana, gertatu dena gertatzea.

Inflexioa, 2012an

2011ko Madril aldeko danbada hark merezi baino oihartzun eskasagoa izan zuen Euskal Herrian. Ulergarria da, jakina, orduan hemen irekitzen ari zen agertoki berriak arreta guztia bereganatzen zuelako eta egiazkoa zelako: gertaera politiko historiko egiaztagarria genuen aurrez aurre eta ez zalantzaz beteriko ameskeria. Areatzako suaren ondoren, kea baino ez zirudien Puerta del Sol-eko hark.

Urtebete geroago, Ahal Dugu oraindik ez zen usaindu ere egiten eta Pablo Iglesias “La Tuerka”-tik “La Sexta”-ra jauzitxoa baino ez zen ematen ari. Baina Euskal Herrian 2011ko bi haiek baino are garrantzitsuagoa zen hauteskunde lehia genuen aurrez aurre: Gasteizko Legebiltzarrekoa. Oso laburtuta, bi aukera zituen EH Bilduk, bidea egiten segitzeko: jada trabatzen hasia zen baina oraindik indartsu ze-